

300 musikarik baino gehiagok interpretatuko dute Berliozen itzelezko "*Hildakoen Meza Handia*", *Requiem-a* Kursaal Auditorioan

- **Bihar, abuztuaren 19, asteazkenarekin, 20:00etan.**
- **Euskadiko Orkestra eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Donostiako Orfeoia eta Easo Abesbatza elkarrekin ariko dira, guztiak Erik Nielsen maisuaren zuzendaritzapean.**
- **John Matthew Myers tenor estatubatuarra, une honetan nazioartean proiektzio handienetakoa duen ahots gazteetako bat, bakarlari ariko da.**
- **Sarrerak: quincenamusical.eus webgunean eta Kursaaleko eta Victoria Eugenia antzokiko leihatiletan.**

Bihar, abuztuaren 19, asteazkenarekin, (20:00), Kursaal Auditorioan izango da Musika Hamabostaldiaren 87. edizio honetako gaualdirik bikainenetako bat: **Hector Berliozen *Réquiem monumental*** interpretatuko da, bi euskal orkestra sinfonikoak (**Euskadiko Orkestra eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa**) eta hiriko bi abesbatza handi (**Donostiako Orfeoia eta Easo Abesbatza**) bilduko dituen; **John Matthew Myers tenorra** bakarlari dela, **guztira 300 musikari inguru** izango dira, denak **Erik Niensenen** gidaritzapean.

La Grande messe des morts, op. 5, Requiem izenez ere ezaguna, Hector Berliozen obrarik ospetsuenetako bat da, orkestra- eta koru-aparatu erraldoiagatik. Horretan, puntu ezberdinetan kokatutako lau metal-talde izaten dira, eta masa koral galanta (estreinaldian 440 interprete inguru izan ziren); izan ere, konpositoreak berak adierazi zuen, espazioak ahalbidetzen bazuen, ahotsak bikoiztea edo hirukoiztea eta instrumentuak proportzio berean handitzea komeni zela. Berliozen 1837an idatzi zuen, Adrien de Gasparin Frantziako Barne ministroaren aginduz; ministroak urtero formatu handiko lanak finantzatzuz musika sakroa biziberritu nahi zuen. Meza, hasiera batean, 1830eko uztailera iraultzan hildako soldaduak oroitzeko eskatu bazuen ere, zeremenia hura bertan behera geratu zen errezele politikoak zirela-eta. Lehen interpretazioa 1837ko abenduaren 5ean egin zen, Parisko Saint Louis des Invalides elizan, Damrémont jeneralaren eta Konstantinako setioan (Aljeria) eroritako soldaduen omenezko hileta-zerbitzu batean. Hainbeste musikarirekin, estreinaldia konplexua eta tirabiratsua izan zen; Berliozen *Mémoires* delakoetan kontatzen duenez, *Tuba mirum* dramatikoan François Antoine Habeneck zuzendariak batuta jeitsi zuen rapé-a hartzeko eta konpositoreak berak podiumera jauzi egin behar izan zuen fanfarreen sarrera mailakatu erabakigarria salbatzeko.

Requiem-a hamar mugimendutan egituratzen da, hasi solemnea den *Introitus et Kyrie* solemnetik eta bukaerako *Agnus Dei* raino, eta gogeta espiritualerako uneak indar ia apokaliptikodun eztandekin tartekatzen dira, bereziki *Dies irae* ospetsuan eta *Tuba mirum* delakoan; horretan lau metal multzoek eta perkusio aberatsak efektu inguratzaille handia sortzen dute. Publikoaren harrera sutua izan zen berehala, Berliozen ospea Frantziako konpositore handienetako bat bezala sendotzeraino hazi zen, eta obra hildakoen mezaren eredu erromantiko berri bihurtu zen. Berliozen berak baieztatu zuen, inork bere lan guztiak suntsitu nahiko balitu, bat izan ezik, bere *Messe des morts* handiarekiko bakarrik eskatuko lukeela errukia.

Berliozen nahiak bete eta hain muturreko soinu kontrasteak lortzeko, bi euskal orkestrak, Euskadiko Orkestra eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa bat egingo dute Kursaalean azkenekoz elkartu zirenetik hamar urte igaro direnean; orduan ere, 2026an, Berliozen beste partitura erraldoi bat interpretatu zuten elkarrekin, *Te Deum*, jaialdiaren 77. edizioari amaiera emateko. 1982an sortu zenetik, **Euskadiko Orkestra** beti egon da Musika Hamabostaldiaren programazioan. Estatu mailan erreferentziatzko orkestra sinfonikoa da, Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean jarduera finkoa duena; Hamabostaldi honetan, hizpide dugun kontzertuan izateaz gain, beste bitan aritu da: abuztuaren 7an Senperen musika

barrokoko programa bat aurkeztu zuen eta hilaren 12an, Juano Menaren zuzendaritzapean, Juan Crisostomo Arriagaren omenez, kontzertu monografiko bat eskaini zuen, haren heriotzaren 200. urteurrenean.

2022an bere sorreraren mendeurrena ospatu zuen **Bilbao Orkestra Sinfonikoa** ere oso presente egon da Hamabostaldiaren historian. Bizkaitar hiriburuan musikaren ikur nagusienetakoa izanik, kontzertu-jarduera propioa du Euskalduna Jauregian eta OLBERen emanaldi ugaritan parte hartzen du. Hamabostaldian orkestraren azken esku-hartzeak izan dira Sorozabalen *La tabernera del Puerto* zarzuela (2022) eta Stravinskyren *Oedipus Rex* opera-oratorioa (2023).

2016ko *Te Deume*an bezala, bi orkestrak Donostian erreferentziazkoak diren bi abesbatzekin jardungo dira: Donostiako Orfeoiarekin eta Easo Abesbatzarekin, hain zuzen. **Donostiako Orfeoia** protagonista izan da Hamabostaldiko kontzertu sinfoniko-koral askotan, eta jaialdiaren 76 ediziotan baino gehiagotan parte hartu du; nazioartean oihartzun handiena duen euskal taldeetako bat da eta mundu mailako zona duten agertoki ugaritan aritu da, esaterako, Berlingo Philharmonie edo Salzburgoko Jaialdia. Bere erreperitorioak ehun bat obra sinfoniko-koral, berrogeita hamar opera eta zarzuela baino gehiago eta folklore zein polifonia obra asko biltzen ditu. **Easo Abesbatzak** ere oso maiz izaten da jaialdiaren programazioan, bai ahots baxuen ohiko formazioan (1940koa), bai ahots mistoen formatu berrienean. Azken horrek, 2006an sortua, ehun kantari inguru biltzen ditu, eta polifonia, folklorea – bereziki euskal folklorea – eta obra sinfoniko-koral handiak ditu erreperitorioan; azken urteotan, Easoren haurren abesbatzek ere une gogoangarriak eman dizkiote Hamabostaldiari, haurrentzako berariazko operen estreinaldiei esker, aurtun, esaterako, *Zomozorroak* kontzertu pedagogiko dramatizatuarekin.

Ahotsen atala **John Matthew Myers** tenor estatubatuarra osatuko du. Gaztea izan arren, tenorra New Yorkeko Metropolitan Opera edo Milango alla Scala antzokietan aritu da. Opera News-ek "jarraitu beharreko artista" gisa definitu du, eta kritikak bere ahots-kolore ilunaren aberastasunagatik goraipatzen du. *Requiem*aren azken minutuetan, Myrsek bere gain hartuko du *Sanctuse*ko bakarlari-rol zaila.

Erik Nielsenek zuzenduko du kontzertua. Nielsen Bilbao 2015 eta 2024 artean Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzendari titular izanagatik bereziki ezaguna da gure artean, eta aditua da operan eta erreperitorio sinfoniko-koral handian. Profil bereziko musikaria da berau, zuzendari izateaz gain oboe- eta harpa-jotzaile trebea baita. New Yorkeko Juilliard School-en ikasi eta, ondoren, Alemaniara joatea erabaki zuen, Berlingo Orkestra Filarmonikoaren baitan alemaniar hizkuntza eta musikarekin ohitzeko. Handik Frankfurtoko Opera zuzentzera igaro zen eta antzokiko Kapellmeister bezala operaren eremuan eskarmentu ugari bereganatu zuen. Ibilbide horri esker, orkestra barrutik ongi ezagutzen duen zuzendaria da eta hark munduko orkestra onenetako askorekin ondutako bertsioak famatuak dira horien sendotasun eta musikaltasunagatik.

Kontzertu honetarako **sarrerak quincenamusical.eus** webgunean eta **Kursaaleko eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan** eros daitezke.

Kontzertuak **Antiguo Berri** enpresaren babesa du.

Hector Berlioz
HILDAKOEN MEZA HANDIA, "REQUIEM" OP.5

EUSKADIKO ORKESTRA
BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA
DONOSTIAKO ORFEOIA

(Txomin Maidagan, abesbatzako zuzendari gonbidatua)

EASO ABESBATZA

(Gorka Miranda, abesbatzako zuzendaria)

ERIK NIELSEN, zuzendaria

JOHN MATTHEW MYERS, tenorra

Abuztuaren 19 asteazkena, 20:00. Kursaal Auditorioa